



BIRGAITZEAREN, IRISGARRITASUNAREN ETA ENERGIA-EFIZIENTZIAREN ARLOETAKO FINANTZA-NEURRIAK

Liburuxka honetan Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21 (e)ko Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko gutxieneko betekizunak jasotzen dira. Agindu hori etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketak babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa da.

Jarduketa babesgarriak

Honako hauek dira, *batik bat*, babesten diren obrak: fatxadak zaharberritzea, terrazak eta balkoiak egitea eta/edo ixtea (ez obra partikularretan), suteen aurkako segurtasuna, atari eta eskaileretako konponketa-lanak, komunak egokitzea, kanpoko arotzeria ordeztzea, igogailuak berritzea edo instalatzea, oztupo arkitektonikoak ezabatzea edo desgaitu sentsorialentzat egokitzea.

Era berean, ingurutzailerik termikoan esku hartzea eskatzen duten jarduketak ere aurreikusten dira, berokuntzarako urteko energia-eskaria, gutxienez, % 50 murrizteko; bai eta eguzki-kolektoreak instalatzeko edo monitorizazio-sistemari lotutako energiaren kudeaketa aurreratuko sistemak sostengatzeko jarduketak ere.

Orobat, jarduketa babesgarriak izango dira lokalak etxebizitza bihurtzeko lanak ere, betiere dagokion udal-araudiak horretarako aukera ematen badu eta lokal bakoitzeko etxebizitza bana baizik sortzen ez bada.

Obrak honako epe hauetan amaitu beharko dira:

- 1. lerroa. Obra partikularrak: 12 hilabete emakidaren ebazpena jakinarazi zenetik.
- 2. lerroa. Erkidegoen obrak: 18 hilabete emakidaren ebazpena jakinarazi zenetik.
- 3. lerroa. Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obrak: 30 hilabete emakidaren ebazpena jakinarazi zenetik.

OBRA PARTIKULARRAK. 1. LERROA

1. mota. Kontserbazioa eta bizigarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio osoak edo eraberritze-lanak egitea: elektrizitate-sistema, saneamendua, horniduraren, oinarrizko hornidura, espazioen funtzionaltasunaren edo barneko airearen kalitatearen hobekuntza, hondakinak kudeatzeko sistema eta abar. - Konfort akustikoa hobetzea - Lokalak etxebizitza bihurtzea - Fatxada, teilatua eta egitura (familia bakarreko eraikinak)
2. mota. Energia-efizientzia hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Instalazio osoak edo eraberritze-lanak egitea: berokuntza-, hozte- eta aireztatze-sistemak, etxeko ur beroaren hornidura, argizatze-sistema, energia elektrikoaren autokontsumoa, ingurutzailerik termiko eta akustikoa eta etxeko airearen kalitatea - Isolamendu termikoa eta akustikoa - Kanpo-arotzeria ordeztzea - Leihoen eta galdaren aldaketak
3. mota. Irisgarritasuna hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Komunak egokitzea - Etxebizitzaren banaketa egokitzea oztupo arkitektonikoak ezabatzeko edo desgaitasun sentsoriala duten pertsonentzat egokitzeko
4. mota. Eraikuntza egokira doitzea	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitza-barruko eraberritzeekin zerikusia duten obrak: igeltserotza- eta eskaiola-lanak, barruko arotzeria, iturgintza... Bai eta elektrizitate-, telefonia-, berokuntza-, gas- eta pintura-instalazio partzialak ere

ERKIDEGOEN OBRAK. 2. LERROA

1. mota. Kontserbazioa, segurtasuna eta bizigarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Egiturak egokitzea - Fatxadak birgaitzea - Terrazak eta balkoiak instalatzea - Lehendik balkoiak dituzten eraikinetan, balkoiak zabaltzea edo luzatzea, harik eta elementu horiek kanpoko areto edo terraza bihurtu arte - Teilatuak, instalazioak edo isolamendu akustikoa ordeztzea - Hirigintza-egokitzapenerako jarduketak - Suteen arloan eraikinaren segurtasuna hobetzerako bideratutako jarduketak. - Atari eta eskaileretako konponketa-lanak
2. mota. Energia- efizientzia hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpoko arotzeriak ordeztzea - Isolamendu termikoa - Instalazio osoak edo eraberritze-lanak egitea: berokuntza-, hozte- eta aireztatze-sistemak, energia elektrikoaren autokontsumoa, etxeko ur beroaren hornidura, argizatze-sistema, inguratzaille termikoa eta etxeko airearen kalitatea - Eraikin osoko terrazak eta balkoiak ixtea uniformetasunaren arabera
3. mota. Irisgarritasuna hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko igogailuak berritzea edo instalatzea - Oztopo arkitektonikoak ezabatzea - Bide publikotik eraikinerako sarbideak eraberritzea - Tresneriak eta lanabesak berritzea, baita berorien seinaleztapena ere

BIRGAITZE INTEGRAL ETA EFIZIENTERAKO ERKIDEGOEN OBRAK. 3. LERROA

NAHITAEZKOA DA JARDUKETA MULTZO BATI ALDI BEREAN EKITEA, PROIEKTU BAKAR BATEN BITARTEZ

JARDUKETA MULTZOA (proiektuak jarduketa GUZTIAK jaso behar ditu)	<ul style="list-style-type: none"> - Energia-eraginkortasuna hobetzea, C mailako energia-kalifikazioa eta, berokuntza-eskariari dagokionez, D mailako kalifikazio partziala lortzeko. - Irisgarritasuna hobetzea, pertsona guztiei, eta bereziki gurpil-aulkien erabiltzaileei, bide publikotik etxebizitza bakoitzera beren kabuz eta modu autonomoan iritsi ahal izatea bermatzeko. - Suteen aurkako segurtasuna hobetzea; hor sartuko dira sua detektatzeko, alarma jotzeko eta itzaltzeko tresneriak eta instalazioak, bai eta larrialdietarako argiteria eta seinaleen arloko neurriak ere. - Proiektuek kanpoko bizigarritasuna hobetzea ere jaso lezakete (nahitaezko jarduketa izan gabe)
DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK	
Energia- efizientzia hobetzea (NAHITAEZKOA)	<ul style="list-style-type: none"> - Eraikinaren inguratzaillearen gaineko jarduketa pasibo integralak, berokuntzarako urteko eskaera energetikoa gutxienez % 50 murriztu dezaten, eraberritu aurreko egoerarekin alderatuta - Eraikineko energia berriztaezinaren kontsumoa gutxienez % 20 murriztuko duten jarduketa aktiboak, hala nola energia-efizientzia handiko tresneriak dituzten instalazio zentralizatuak, eguzki-kolektoreen edo energia berriztagarriko beste iturri batzuen instalazioa, edo aireztapen mekaniko kontrolatuko sistemak. - Energiaren monitorizazioa
Irisgarritasuna hobetzea (NAHITAEZKOA)	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpoko edo barruko igogailuak instalatzea, eta, hala badagokio, eskailerak moldatzea - Igogailuak egokitzea, zero kotatik irisgarritasuna bermatzeko eta/edo kabinaren neurriak irisgarritasun-araudira egokitu ahal izateko - Zero kotatik irisgarritasuna bermatzeko jarduketak, aurrekoetatik bestelakoak - Bide publikotik eraikinerako sarbidea, atari ondoko urbanizazio pribatuko eremuetatik, betiere ordezkoi ibilbiderik ez badago
Suteetatik babesteko segurtasuna hobetzea (NAHITAEZKOA)	<ul style="list-style-type: none"> - Detekzio- eta alarma-sistemak instalatzea - Ebakuazio-sistemak instalatzea. Larrialdietako argiztapena - Sua itzaltzeko sistemak instalatzea: itzalgailuak eta tutu lehorra
Kanpoko bizigarritasuna hobetzea (EZ DA NAHITAEZKOA)	<ul style="list-style-type: none"> - Balkoiak edo terrazak instalatzea - Lehendik balkoiak dituzten eraikinetan, balkoiak zabaltzea edo luzatzea, harik eta elementu horiek kanpoko areto edo terraza bihurtu arte

Betekizun orokorrak

Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak

- Ezingo dute laguntzarik jaso, eta, horrenbestez, ezin izango dira onuradun izan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua 2. eta 3. lerrokadetan edo hura ordeztzen duen araudian biltzen diren inguruabarretako baten pean dauden pertsonak edo erakundeak.
- Ezin izango dituzte laguntza hauek eskuratu dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, ezta horretarako legezko inolako debekurik dutenek ere, sexu-bereizkeriatatik eragindakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.
- Onuradun izateko debekuren baten pean ez daudela justifikatzeko, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.
- Eskatzaileek egunean izan beharko dituzte betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Birgaitzearen arloko finantza-neurriak eskuratzeko aukera izango dute pertsona fisiko edo juridikoek, publikoak nahiz pribatuak izan, ondasun-erkidegoek edo bestelako unitate ekonomiko edo ondare bananduek, nahiz eta nortasun juridikorik izan ez, baldin eta birgaitzeko premian dagoen ondasun higiezinaren jabe, maizter, gozamedun edo eskubide errealeen titular badira, edota ondasun higiezina baliatzeko beste edozein titulu badute.
- Elementu komunetan esku hartu behar bada, jabeen erkidegoa ordezkatzeko duenak izapidetu beharko ditu laguntzak, jabetza horizontala arautzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Eraikinaren betekizunak

- Neurri horiez baliatu ahalko dira, batez ere, familia bakarreko etxebizitzak eta etxebizitza-erabilera nagusia duten eraikinetako elementu pribatiboak.
- Eraikinak 20 urte baino gehiago izan behar ditu, salbu eta haren egonkortasunean eta segurtasunean eragina duten kalteak baditu, edo oztopo arkitektonikoak kentzea eskatzen bada, etxebizitza bat, gutxienez, 65 urtetik gorako –edo mugikortasun murriztua edo zentzumen-disfuntzioa duen– pertsona baten ohiko bizileku iraunkorra den kasuan.
- Eraikinaren jabe diren pertsona eta erakundeek eraikinaren ikuskapen teknikoa (EIT) egin izan beharko dute eskabidea formalizatu aurretik, eta dagokion udaleko sarrera-erregistroa eduki beharko dute, eraikinaren adina edozein dela ere.
- Familia bakarreko etxebizitzaren eta baserrien kasuan, eraikinen ikuskapen teknikoa eskaera formalizatu aurretik egin beharko da beti.
- **Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obren** kasuan, beste baldintza gehigarri batzuk bete beharko dituzte eraikinek. Tartean, hauek:
 - Familia anitzeko bizitegi-eraikinak izatea, gutxienez 4 etxebizitza dituztenak
 - 1980a baino lehen eraikitakoak izatea
 - Energia-efizientziaren eta irisgarritasunaren arloetan hainbat gabezia egiaztatzea.



Finantza-neurriak

Pertsona eta erakunde onuradunek hiru motatako finantza-neurriak lortu ahalko dituzte:

- Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak
- Mailegu kualifikatuen interes-tasen subsidiazio partziala/guztira
- Mailegu kualifikatuak

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak

Laguntza hauen onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona edo erakundeek jaso dezaketzen dirulaguntzaren zenbatekoa honako irizpide hauen arabera kalkulatu da:

- Aurrekontu babesgarria
- Obra edo jarduketa mota eta lortutako hobekuntza maila
- Birgaitze mota, integrala edo isolatua, edo, birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obren kasuan, kasu berezien edo orokorren barruan egotea
- Bizikidetzeta-unitatearen diru-sarrera haztatuak, hala badagokio
- Esku-hartzearen xede diren etxebizitza eta/edo atarien kopurua, kasua hala bada

Obra partikularrak.1 Lerroa

Gutxieneko aurrekontu babesgarriak 3.000 eurotik gorakoa izan beharko du, irisgarritasun-obretarako izan ezik; eta ezingo du gainditu etxebizitzaren edo lokalaren gehieneko azalera erabilgarri konputagarriari diruz lagundu nahi den esku-hartzea dagoen udalerrian araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehaztean indarrean dagoen metro koadro erabilgarriko prezioa aplikatuzetik ondorioztatzen dena.

Zenbatekoaren kalkulua jarraian aurkezten den taularen arabera egingo da:

Diru-sarrera haztatuak	Kide kopurua	1. motako obrak	2. motako obrak	3. motako obrak	4. motako obrak
9.000 eurora arte	3 edo gutxiago	I: % 75 A: % 65	I: % 75 A: % 70	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50
	3 baino gehiago	I: % 80 A: % 70	I: % 80 A: % 75	I: % 85 A: % 75	I: % 65 A: % 55
9.001 eta 15.000 euro bitartean	3 edo gutxiago	I: % 70 A: % 60	I: % 75 A: % 65	I: % 75 A: % 65	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 75 A: % 65	I: % 80 A: % 70	I: % 80 A: % 70	I: % 60 A: % 50
15.001 eta 25.000 euro bitartean	3 edo gutxiago	I: % 60 A: % 50	I: % 65 A: % 55	I: % 65 A: % 55	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 65 A: % 55	I: % 70 A: % 60	I: % 70 A: % 60	I: % 60 A: % 50
Gehienekoa		I: 7.500 euro A: 5.500 euro	I: 9.500 euro A: 7.500 euro	I: 10.000 euro A: 8.000 euro	I: 5.000 euro A: 3.000 euro

* I: Birgaitze integratua // A: Birgaitze isolatua.

Baldin eta jarduketak Eusko Jaurlaritzaren alokairu-merkatuko bitartekaritza-programetako batean sartuko diren etxebizitzetan –sei urteko epe baterako, gutxienez– egiten badira, aurreko baremoak aplikatuta legezkiekeen laguntzei dirulaguntza gehigarri bat erantsiko zaie, aurrekontu babesgarriaren % 25ekoa, 4.000 euroko mugarekin.

Lokalak etxebizitza bihurtzeko birgaitzeen kasuan, betiere udal-ordenantzek ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta etxebizitza bakarra gaitzen bada lokal bakoitzeko, honako hau izango da dirulaguntzaren zenbatekoa:

- Birgaitze integratuko eremuetan: Aurrekontu babesgarriaren % 25, 5.500 euro gehienez.
- Birgaitze isolatuko eremuetan: Aurrekontu babesgarriaren % 20, 4.000 euro gehienez.

Erkidegoen obrak: erkidegoentzako laguntzak eta elementu pribatiboetarako laguntza partikularrak. 2 Lerroa

Komunitatearen laguntza

Erkidegoko obretan, babes daitekeen gutxieneko aurrekontua 3.000 eurotik gorakoa izan behar da etxebizitza edo lokal bakoitzeko (gutxieneko mugarik ez duten irisgarritasun-obrak izan ezik). Itzuli beharrik gabeko laguntza bat emango zaie jabeen erkideei edo erkidegoen elkarteari, etxebizitza-kooperatibari, jabeari edo jarduketa babestuen onuradun diren enpresa, erakunde edo sozietateei. Laguntzaren zenbatekoa, obra motaren arabera, honako hau izan daiteke:

	B. integratua	B. isolatua
1. mota. Kontserbazio-, segurtasun- eta bizigarritasun-obrak:	aurrekontu babesgarriaren % 50. Dirulaguntzaren gehienekoa zenbatekorik apalenaren arabera kalkulatu da; 3.000 € etxebizitzako eta 30.000 € atariko	aurrekontu babesgarriaren % 40. Dirulaguntzaren gehienekoa zenbatekorik apalenaren arabera kalkulatu da; 2.500 € etxebizitzako edo 25.000 € atariko
2. mota. Energia-efizientzia hobetzeko obrak:	Eraikinaren egungo adierazle globalarekin alderatuta, CO ₂ isuriak % 30 baino gehiago murriztea lortzen duten edo lor dezaketen jarduerak, eta, gutxienez E letrako edo hortik gorako adierazle orokor bat lortzen badute, aurrekontu babesgarriaren % 40ko laguntza jaso ahal izango dute, gehieneko mugarekin, txikiagoa denaren arabera: 5.000€ etxebizitza bakoitzeko edo 50.000€ atari bakoitzeko. Halaber, eraikinaren gaurko adierazle globalarekin alderatuta, isurketa globalak % 50 baino gehiago murriztea lortzen duten edo lor dezaketen jarduketek, eta, gutxienez D letrako edo hortik gorako adierazle orokor bat lortzen badute, aurrekontu babesgarriaren % 50eko laguntza jaso ahalko dute, gehieneko mugarekin, txikiagoa denaren arabera: 6.500€ etxebizitza bakoitzeko edo 65.000€ atari bakoitzeko.	
3. mota. Irisgarritasuna hobetzeko obrak	aurrekontu babesgarriaren % 50. Dirulaguntzaren gehienekoa zenbatekorik apalenaren arabera kalkulatu da; 3.500 € etxebizitzako eta 35.000 € atariko	aurrekontu babesgarriaren % 40. Dirulaguntzaren gehienekoa zenbatekorik apalenaren arabera kalkulatu da; 3.000 € etxebizitzako eta 30.000 € atariko

Elementu pribatuak dituzten partikularrei banakako laguntza

Laguntza horiek, gainera, jabetza horizontaleko araubidean banatuta dauden eraikinetako elementu pribatiboen –etxebizitza, zein lokal– titularrei zuzendutako itzuli beharrik gabeko banakako laguntzekin osatu ahalko dira. Honako taula honen arabera kalkulatu da laguntza horiek:

Diru-sarrera haztatuak	Kide kopurua	1. motako obrak	2. motako obrak	3. motako obrak
9.000 eurora arte	3 edo gutxiago	I: % 55 A: % 45	I: % 55 A: % 50	I: % 60 A: % 50
	3 baino gehiago	I: % 60 A: % 50	I: % 60 A: % 55	I: % 65 A: % 55
9.001 eta 15.000 euro hitartean	3 edo gutxiago	I: % 50 A: % 40	I: % 55 A: % 45	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 55 A: % 45	I: % 60 A: % 50	I: % 60 A: % 50
15.001 eta 25.000 euro hitartean	3 edo gutxiago	I: % 40 A: % 30	I: % 45 A: % 35	I: % 45 A: % 35
	3 baino gehiago	I: % 45 A: % 35	I: % 50 A: % 40	I: % 50 A: % 40
Gehienekoa		I: 7.500 euro A: 5.500 euro	I: 9.500 euro A: 7.500 euro	I: 10.000 euro A: 8.000 euro



Banakako laguntzak zehazteko orduan, berriz, erkidegoen obretarako aurrekontu babesgarriari –behin emandako laguntza orokorrak kendu ondoren– elementu pribatiboen titular bakoitzaren parte-hartze kuotari dagokion ehunekoak aplikatuko zaio. Oinarri horren gainean, aurreko taulan ezarritako ehunekoak eta gehieneko mugak aplikatuko dira.

Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obrak. 3 Lerroa

Itzuli beharrik gabeko laguntzak emango zaizkie jabeen erkidegoei, udalei, toki-erakunde txikiei, etxebizitza-sozietate publikoei eta etxebizitza-erakinen jabe diren etxebizitza-sustatzaile publikoei, baldin eta esandako jarduketa babestuen onuradun badira.

Jarduketa bakoitzari, kostu edo aurrekontuaren gehieneko ehuneko bat aplikatuko zaio, laguntzaren gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta, Agindu arauemailean aurreikusitakoaren arabera.

Itzuli beharrik gabeko laguntzaren zenbatekoa energia-efizientzia, irisgarritasuna, suteen aurkako segurtasuna –eta, hala badagokio, kanpoko bizigarritasuna– hobetzeko diruz lagun daitezkeen jarduketei dagozkien laguntzen baturaren emaitza da.

Edonola ere, batura horren ondoriozko laguntzaren guztizko zenbatekoak ezingo ditu honako zenbateko hauek gainditu etxebizitza bakoitzeko:

DIRULAGUNTZA GUZTIRA	GEHIENKO ZENBATEKOA
Kasu orokorra	30.000 €/etxebizitza
Kasu bereziak	35.000 €/etxebizitza

Mailegu kualifikatuen interes-tasen subsidiazio partziala/guztira

Birgaitzeko jarduketa babesgarrien kasuan, baldin eta, obrak amaitu ondoren, etxebizitza Eusko Jaurlaritzaren alokairu-merkatuko bitartekotza-programaren batean gutxienez sei urtez eskuragarri jartzea badakarte, etxebizitza-gaietan eskumena duen sailak behar besteko interes-tasa subsidiatuko du, pertsona edo erakunde onuradunarentzat subsidiatutako interes-tasa urteko efektiboaren % 1 izan dadin (0,99 nominala hileko muga-egunekin) bitzitza osoan zehar. Horrelako eragiketetan diruz lagunduko dira interes aldakorrekotasak nahiz tasa finkoak edo mistoak.

3.– Birgaitze-jarduketa babesgarriek irisgarritasun-obrak dakartzatenean, osagai espezifiko horretarako soilik eta aurrekontu babesgarritik bereiz daitekeenean, eta irisgarritasunagatik egotz daitezkeen itzuli beharrik gabeko laguntzak deskontatu ondoren, zenbateko bat zehaztuko da, mailegu bidez finantza daitekeena, irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezi horren onuradunentzat soilik. Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailak behar adinako interes-tasa subsidiatuko du, benetako TIN kostua pertsona edo erakunde onuradunarentzako urteko benetako % 0 izan dadin mailegu kualifikatuaren iraunaldi osoan. Horrelako eragiketetan diruz lagunduko dira interes aldakorrekotasak nahiz tasa finkoak edo mistoak.

Mailegu kualifikatuak

Itzuli beharrik gabeko laguntzen onuradun diren pertsona eta erakundeek kreditu-establezimenduek emandako mailegu kualifikatuak eskuratu ahal izango dituzte, finantza-lankidetzako hitzarmenean eta birgaitze-lanetarako finantza-tresna berezian jasotzen diren baldintzetan.

Maileguaren zenbatekoa diruz lagun daitezkeen kostuak osorik estaltzera irits daiteke. Hala badagokio, administrazio honek edo beste ezein administrazioek emandako itzuli beharrik gabeko laguntza guztiak kenduko zaizkio.

Laguntzen bateraezintasuna

Aurreikusitako finantza-lerroak bateragarriak dira elkarren artean, 2. eta 3. lerroetako erkidegoen obrenak izan ezik.



Bateragarriak dira, halaber, beste administrazio batzuetatik lor daitezkeen laguntzekin, horiek ere bateragarritzat hartzen baldin badira.

Bateragarritasun hori aplikatzekoa izango da, laguntza bateragarri guztien guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen diruz laguntzekoak diren jarduketan kostua.

Kontuan hartzekoa da, halaber, birgaitzekoa den eraikinean elementu pribatibo bat baino gehiago dituzten pertsonak edo erakundeek 1. lerroko neurriak edo 2. lerroko banakako neurriak eskuratu ahal izango dituztela, baina bati dagozkionak bakarrik.

Hala ere, bateraezinak dira honako hauekin:

- EEEP programa, zeina Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) kudeatzen baitu
- EGEFk edo Europako beste egitura- eta inbertsio-funts batzuek kofinantzatutako beste edozein laguntza

Irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro berezia

65 urtetik gorako pertsonak eta mugikortasun murriztua edo desgaitasun sensoriala dutenek, kide diren bizikidetz-unitateekin batera, eta, horrez gainera, 12.000 €-ko edo hortik beherako urteko diru-sarrera haztatuak dituzten bizikidetz-unitateek dirulaguntza-lerro berezi bat eskuratu ahal izango dute, zeinaren xedea erraztasunak ematea baita irisgarritasun-obrak egiteko —obra partikularrak zein erkidegoari dagozkionak—.

Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obren kasuan (3. lerroa), dirulaguntza-lerro hori eskuratzeko aukera izango dute, 1. eta 2. lerroetako onuradunen baldintza berberetan, esku-hartzearen xede den eraikineko etxebizitzaren baten jabe, maizter, gozamedun edo eskubide errealeen titular direnek, edota ondasun higiezinak legez erabiltzeko eta aprobetxatzeko beste edozein eskubide dutenek.

Dirulaguntza-lerro berezi honen helburua da Agindu honetan ezarritako dirulaguntza publikoek estaltzen ez duten eta irisgarritasunari egotz dakioken birgaitzearen kostua ordaintzea, edota helburu bera lortu nahi duen beste edozein kostu, % 100eraino, etxebizitzaren titularrek edo bertan bizi direnek —hor bizitzeko eskubidea ematen dien kontratua oinarri hartuta— ordaindu behar duten kasuan.

Aplikatu behar den ehunekoa urteko familia-errenta haztatuaren eta bizikidetz-unitateko kide kopuruaren arabera izango da, eta hurrengo taulari jarraikiz aplikatuko da:

DIRU-SARRERA HAZTATUAK	BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDE KOPURUA		
	1 kide	2 kide	3 kide edo gehiago
9.000 €-ra arte	% 100	% 100	% 100
9.001 €-tik 12.000 €-ra	% 100	% 100	% 100
12.001 €-tik 15.000 €-ra	% 25	% 50	% 100
15.001 €-tik 18.000 €-ra	% 0	% 25	% 50
18.001 €-tik 25.000 €-ra	% 0	% 0	% 25

Beren-beregi eskatu beharko da aipatutako lerro berezi hori eskuratu nahi dela, eta finantza-neurriak eskatzeko momentu eta ekintza berean formulatuko da eskakizuna; eskabide horretan, argi eta garbi bereizi beharko dira irisgarritasun-obrei dagokien aurrekontua eta gainerako jarduketan babesgarriei dagokiena.

Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obren kasuan (3. lerroa), jabeen erkidegoaren alde itzuli beharrik gabeko laguntzak aitortzen dituen administrazio-ebazpena jakinarazten denetik egin ahal izango

da eskabidea, hiru hilabeteko gehieneko epearen barruan, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak proiektua teknikoki onartzen duenetik zenbatuta.

Finantza-neurrien izapideak

Eskabideak aurkeztea

- Prozedura eskabidea aurkeztearekin hasiko da; eskabidearekin batera, beharrezko betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, honela:
 - Obra partikularren eta erkidegoetarako laguntzen kasuan, obrak hasi aurretik aurkeztu beharko da.
 - Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako laguntzetan, lizentzia eskatu aurretik aurkeztu beharko da.
- Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta nahitaez elkargokide izatea eskatzen duen jardura profesional batean ari diren pertsona interesdunek bitarteko elektronikoaren bidez egin beharko dute prozedura guztia. Pertsona fisikoek bitarteko elektronikoak edo aurrez aurrekoak erabili ahal izango dituzte. Dokumentazioa eskatzean eta aurkeztean bide bat edo bestea erabiltzeak ez du esan nahi prozedurako hurrengo izapideetan bide hori erabili behar denik.

Eskabidea bitarteko elektronikoaren bidez aurkezteko, pertsona edo erakunde interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bitartez egin beharko dute: <https://www.euskadi.eus/sede-electronica>.

Ebazpena emateko epea eta administrazio-isiltasunaren ondoreak

Ebazpena lau hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskabidea egin zen egunetik zenbatuta, eta administrazioaren isiltasunak ez dela onartu esan nahiko du. Baldin eta eskabidea egin duenari dokumentazio osagarria aurkezteko eskatzen bazaio, ebazpena emateko epea etenda geratuko da jakinarazpena jasotzen denetik dokumentazioa aurkezten den arte.

Obren justifikazioa:

Obra partikular eta erkidegoen obretako birgaitze-jarduketan titular diren pertsonak eta erakundeak (1. eta 2. lerroak) urtaldi bakoitzari dagokion inbertsioa justifikatu beharko dute obra-ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri hori teknikari eskudunak edo obrako kontratistak eman beharko du. Obrak egiteko epea amaitu denetik –edo, hala dagokion kasuan, luzapena amaitzen denetik– hilabeteko epearen barruan, obrak egin izana justifikatu beharko da Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan. Horretarako, obra amaituaren jakinarazpena aurkeztu beharko da, esku-hartzearen kontzeptu bakoitzari dagokion azken zenbatekoa zehaztuta dela, eta, besteak beste, fakturak eta obra-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, datu hauek barne direla: enpresa jaulkitzailearen IFZ, birgaitze-jardueren titular diren pertsona edo erakundeak, data, zenbakia eta BEZa.

Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obren kasuan (3. lerroa), obren egikaritze-proiektua eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dira, itzuli beharrik gabeko dirulaguntza eman dela jakinarazten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean. Egikaritze-proiektua onartu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko epea egongo da obrak egiten hasteko, eta obrak egikaritzeko kontratua, hiru egikaritze-eskaintzak, hala dagokionean, udaleko obra-lizentziaren kopia eta obrak hasteko akta aurkeztu beharko dira. Obrak egikaritzen ari direla egindako gastuaren justifikazioa xede horretarako ezarritako egunetan egingo da, aldeztu aurretik justifikatuta. Obrak amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, lanak behar bezala egin direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

Kontuan izan beharreko beste gai batzuk

Eskaintza-eskaera

Obrak azpikontratatu nahi direnean eta diruz laguntzekoa den birgaitze-jarduketaren gastua 40.000 eurotik gorakoa denean (BEZa gabe), obrarako konpromisoa hartu baino lehen, hainbat hornitzaileen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dira.

Era berean, txostenak eta proiektuak idazteko eta obren zuzendaritza fakultatiboa egiteko zerbitzuen kasuan, hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile desberdinei, kontratua formalizatu aurretik, diruz laguntzeko gastua 15.000 eurotik gorakoa bada (BEZa gabe).

Diruz laguntzekoa den kostua 60.000 €-tik gorakoa bada, kontratua idatziz egin beharko da, eta, gainera, organo kudeatzaileak obrak hasi aurretik baimena eskatu ahal izango du.

Ezin izango da kontratua zatikatu, haren zenbatekoa txikiagotu, eta, hala, eskatzen diren baldintzak betetzea saihesteko.

Hornitzaileen artetik bat aukeratzeko orduan, efizientzian eta ekonomian –baina baita kalitate teknikoan ere– oinarritutako irizpideak erabiliko dira, eta, txosten baten bidez, berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena hautatzen ez denean. Aurkeztutako eskaintzen artean aukeratu den proposamena obrak edo ordainsariak justifikatzeko momentuan aurkeztu beharko da edo, hala badagokio, laguntza eskatzeko unean.

Ordainketaren itzulera, baldintzak beteko ez balira

Emandako laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan edo hura ordeztzen duen araudian jasotako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bategineko 53. artikuluan araututako kasuetan edo itzuli beharrik gabeko laguntzaren onuradun gertatu diren pertsona edo erakundeek baldintza eta betekizunen bat betetzen ez dutenean. Hala badagokio, gainera, ordaindutako zenbatekoak eta ordainketa-egunetik metatutako berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Lehengoratzea

Etxebizitza edo lokalen titular diren pertsonak edo erakundeek 6.000 euroko edo hortik gorako laguntza ekonomikoak jaso badituzte arau honetan ezarritako dirulaguntza eta/edo subsidio modura, irisgarritasuna sustatzeko dirulaguntza-lerro bereziari dagozkionak barne, ezingo dituzte etxebizitza edo lokal horiek *inter vivos* borondatez berenganatu ez *mortis causa* eskualdatu ere, obra-amaiera ziurtatu eta 10 urteko epearen barruan, ez bada aldez aurretik egiaztatzen jasotako laguntzak itzuli egin direla – itzulketa egiten den momentuan eguneratuta– eta, horrekin batera, zegokion legezko interesa ere itzuli dela. Zenbateko horretan ez dira sartzen jabeen erkidegoari zuzenean emandako laguntzak.

Itzulketa horretatik kanpo geratzen dira etxebizitzaren edo lokalaren titularkide bati egindako esleipenak, baldin eta esleipen horiek Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutako edo inskribatu gabeko banantze-, dibortzio- edo bikote-hausturei lotutako prozesuen ondoriozkoak badira, bai eta bizikidetzaren unitateak haustearen ondoriozkoak ere, baldin eta lehen graduko odol-ahaidetasunezko harremana duten pertsonak osatuak baldin badira.

6.1 euroko edo gehiagoko zuzeneko laguntza ekonomikoak emateko ebazpena jakinarazi ondoren, etxebizitzaren edo lokalaren titular den pertsona edo erakundeak hipoteka aldebakarra eratu eta Jabetza Erregistroan inskribatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoaren alde, itzulketa egingo dela bermatzeko. Laguntza eman duen Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko hipoteka aldebakarra Jabetza Erregistroan inskribatu dela ziurtatzen duen dokumentua jaso eta horretarako aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu duenean, laguntza eta/edo subsidioa ordaintzeko aginduko du. Halaber, mailegua eman behar duen kreditu-erakundeak ere kontratua sinatu ahal izango du une horretan.

5.—Maizterrak gauzatutako eta jabeak —persona bat edo erakunde bat izan daiteke— baimendutako eskuhartzeetan, jabeak konpromisoa hartuko du, laguntza ematen dion organoaren aurrean, hipoteka aldebakarra eratuko duela Euskal Autonomia Erkidegoaren alde, etxebizitzaren edo lokalaren *inter vivos* edo *mortis causa* eskualdaketak gertatzen diren kasurako, obrak amaitu osteko 10 urteko epean, hain zuzen ere itzulketa bermatzeko, maizterrak bere parte bat beteko ez balu.

Etxebizitzaren edo lokalaren jabetza edo beste edozein eskubide *inter vivos* titulu baten bidez eskualdatu duten pertsonak edo erakundeak ezin izango dute laguntza berririk jaso artikuluko honetan ezarritako itzulketa egin dela egiaztatzen ez den bitartean.

Diruz lagundutako jarduketaren publikitatea eta zabalkundea

Eraikinetan edo berorien elementu komunetan diruz lagundutako jarduketek Eusko Jaurlaritzaren kofinantzaketa dutela frogatu beharko dute. Horretarako, administrazio-ebazpena jakinarazten denean, kartel bat bidaliko da, gutxienez A3 tamainakoa, ikusteko moduko lekuan eta eraikineraren sartzeko ateburutik hurbil ipinita eduki beharko dena, obrak egiten diren bitartean. Esandako inguruabar hori frogatzen duen argazkia aurkeztu beharko da.

Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obren kasuan, berriz, metalezko plaka bat jarri beharko da obrak amaitzean, ikusteko moduan eta eraikinaren sarrerako ateburutik hurbil. Eredua igorriko da, laguntzaren ebazpenarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 EGEF Programa Operatiboaren eta hurrengo barruan edo, hala badagokio, Next Generation programaren barruan kofinantzatutako laguntzen kasuan, diruz lagundutako obrei buruzko informazio- eta komunikazio-jarduketetan Europako Erkidegoaren baterako finantzaketa hori aipatu beharko da.

Betebehar gehigarriak, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren finantzaketa ere baduten kasuan

Energia-efizientzia hobetzeko obretarako –2. lerroa– laguntzen onuradun diren pertsonak eta erakundeak, banakako laguntzen kasuan izan ezik, eta 3. lerrokoek, Europar Batasunak Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) bidez kofinantzatzen dituztenean, gainera, agindu arautzailean jasotako betebehar batzuk izango dituzte, EGEF edo Next Generation funtsaren baterako finantzaketaren ondoriozkoak. Betebehar horien berri, hala badagokio, laguntza eman izana jakinaraztearekin batera emango da. Betebehar horien artean daude, besteak beste, finantza-informazioa, administrazio-informazioa eta egiten diren ekintzen garapeneraren jarraipenari buruzko informazioa artxibatuta edukitzea, eragiketaren gastuak jasotzen dituzten kontuak aurkeztu eta hurrengo abenduaren 31tik aurrera 3 urte igarotzen diren arte; halaber, EGEF edo Next Generation funtsen baterako finantzaketari buruzko informazio- eta dibulgazio-ekintzen inguruko koloretako argazkiak eta dokumentazio deskribatzailea aurkeztea, agindu arautzailean ezarritako baldintzetan.

Garapen-araudia

- **210/2019 DEKRETUA, ABENDUAREN 26KOA**, kreditu-erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruen arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitza arloko neurri osagarriari buruzkoa. ([2020ko urtarrilak 20, astelehena; EHAA, 12. zk.](#)).
- **2021EKO UZTAILAREN 21(E)KO AGINDUA**, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza eta eraikinetako birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloetako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriari buruzkoa ([2021ko irailak 9 osteguna; EHAA, 180 zk](#))